

ADMINISTRAZIO ZUZENBIDEA, B TALDEA

1. ariketa.

1. proba

Galderak: 60.

Denbora, gehienez: 60 min.

EREDUA:

C

- Ez zabaldu esan arte.
- Proba bukatzean inprimaki hau zeurekin eramán dezakezu.
- Gogoan izan:
 - Asmatuak: 1,00
 - Hutsegiteak: - 0,33
 - Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: - 0,00
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan. Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.
- Ez ahaztu orri horia eta argibide-orria zeurekin eramatea.

Eskerrik asko zure laguntzagatik.

1- Konstituzioaren arabera, hirugarren adinekoei eskaini beharreko babesa:

- A) - Politika sozial eta ekonomikoa gidatu behar duten printzipioetako bat da.
- B) - Oinarrizko eskubide bat da.
- C) - Herritarren eskubide bat da.
- D) - Askatasun bat da.

2- Zientzia-sorkuntzarako eskubidea, Konstituzioan, zeren pare ageri da?

- A) - Kulturarako eskubidearen pare.
- B) - Hezkuntza-eskubidearen pare.
- C) - Unibertsitateen autonomiaren pare.
- D) - Adierazpen askatasunaren pare.

3- Barne egitura eta jardura demokratikoak izan behar dituzte:

- A) - Alderdi politikoek.
- B) - Lanbide elkargoek.
- C) - Sindikatuek.
- D) - Horiek guztiek.

4- Konstituzioaren arabera, sar al liteke edozein herritarren bizileku partikularrean, edo erregistra al daiteke?

- A) - Bai, noiznahi ere.
- B) - Ez, bizilekua bortxaezina da beti ere.
- C) - Bai, baina gobernua hala agintzen duelarik bakarrik.
- D) - Bai, jabeak baimena ematen badu, epaileak hala ebazten badu edo delitua ageri-agerikoa bada.

5- 1978ko Konstituzioan ideologia, erlijio eta kultu askatasuna bermatzen da...

- A) - inongo mugarik gabe.
- B) - gizabanakoei bakarrik.
- C) - legeak babesten duen ordena publikoa zaintzea beste mugarik jarri gabe, horien agerpenei.
- D) - erkidegoei bakarrik.

6- Senatua, Konstituzioaren arabera, nolako ordezkari-tzaganbera da?

- A) - Mistoa.
- B) - Zehazgabea.
- C) - Jurisdikzionala.
- D) - Lurraldekakoa.

7- Gorte Nagusiek:

- A) - Probintziak ordezkatzeko dituzte.
- B) - Populazioa ordezkatzeko dute.
- C) - Espainiako herria ordezkatzeko dute, eta Diputatuen Kongresuak eta Senatuak osatzen dute.
- D) - Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

8- Hauek dira lege organikoak:

- A) - Gorte Nagusiek onesten dituzten legeak oro.
- B) - Autonomia legebiltzarrek onesten dituzten legeak.
- C) - Funtsezko eskubideak mugatzen dituztenak bakarrik.
- D) - Funtsezko eskubideak eta askatasun publikoak garatzeari buruzkoak, autonomia estatutuak nahiz hauteskunde erregimen orokorra onesten direnekoak eta Konstituzioan aurreikusten diren gainerakoak.

9- Zein lurralde historikok osatuko dute euskal autonomia erkidegoa?

- A) - Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiak, baita Nafarroak ere, baldin eta Autonomia Estatutuko aldi baterako 4. xedapenean ezarritako prozeduraren arabera hartara biltzea erabakitzen badu.
- B) - Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiak, baita Nafarroak ere, baldin eta Konstituzio aldi baterako 4. xedapenean ezarritako prozeduraren arabera hartara biltzea erabakitzen badu.
- C) - Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiak, baita Nafarroak ere, baldin eta Konstituzio atariko tituluan ezarritako prozeduraren arabera hartara biltzea erabakitzen badu.
- D) - Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiak, baita Nafarroak ere, baldin eta Autonomia Estatutuko atariko tituluan ezarritako prozeduraren arabera hartara biltzea erabakitzen badu.

10- Nork izendatzen du Eusko Jaurlaritzako lehendakaria?

- A) - Erregeak.
- B) - Eusko Legebiltzarrak.
- C) - Eusko Legebiltzarreko presidentek.
- D) - Eusko Jaurlaritzak.

11- Autonomia Estatuaren arabera, zein da Euskadiko autonomia erkidegoaren izena?

- A) - Euskadi edo País Vasco.
- B) - Euskadi.
- C) - Euskadi edo Euskal Herria.
- D) - Euskal Herria edo País Vasco.

12- Euskadi sorburu duen zuzenbidea, bere eta ez besteren eskumen diren gaietan...

- A) - Lehentasunez aplikatu beharrekoa da beste edozeinen aldean, eta halakorik ezean bakarrik aplikatu ahal izango da, horren orde, Estatuko zuzenbidea.
- B) - Lehentasunez aplikatu beharrekoa da beste edozeinen aldean, salbu eta Gorte Nagusiek ordezkotzat jotzen badute.
- C) - Beste autonomia erkidego batzuetan ere aplika daiteke, bertakoa baino onuragarriago denean.
- D) - Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

13- Toki Jaurbidearen Oinarrien Legea aldatzen zuen Tokiko Gobernuaren Eraberritzeko Neurri buruzko 57/2003 Legeak populazio handiko udalerrien antolakuntza erregimena finkatzen du. Zein da horren aplikazio eremua?

- A) - 250.000 biztanletik gorako udalerriak.
- B) - Probintzia hiriburu izanik 175.000 biztanletik gorako populazioa duten udalerriak.
- C) - Probintzia hiriburu, autonomia hiriburu edo autonomia erakundeen egoitza diren udalerriak.
- D) - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

14- Udalerriak, beti ere, eskumenak izango ditu gai hauetan:

- A) - Babes zibila, suteen prebentzioa eta suteak itzaltzea.
- B) - Hilerriak eta hileta zerbitzuak.
- C) - Osasun publikoa babestea.
- D) - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

15- Udalerrri berriak eratzerik izango da...

- A) - Lurralde bereiziko populazio guneak oinarri direla bakarrik egin ahal izango da.
- B) - Baldin eta ondoriozko udalerriek beren udal eskumenak betetzeko nahikoa baliabide badituzte.
- C) - Ematen ziren zerbitzuen kalitatea murriztea ez badakar.
- D) - Aurreko erantzun guztiak elkarren osagarri dira.

16- Zeini dagokio udal errolda eratu, mantendu, berrikusi eta zaintzea?

- A) - Diputazioari.
- B) - Estatuari.
- C) - Udalari.
- D) - Gobernu Zibilaren ordezkariari.

17- Nolakoak izan daitezke legeak?

- A) - Organikoak edo arruntak.
- B) - Organikoak, arruntak edo bereziak.
- C) - Organikoak, arruntak edo araudiak.
- D) - Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

18- Administrazio zuzenbidearen iturri da, legea, ohitura eta zuzenbidearen printzipio orokorrez gain,...

- A) - Doktrina.
- B) - Jurisprudentzia.
- C) - Nazioarteko itunak.
- D) - Horietako bat ere ez.

19- Noiz jartzen dira indarrean legeak?

- A) - Dagokien buletinean osorik argitaratzen direnetik 20 egunera, haietan bertan besterik xedatzen ez bada.
- B) - Beti ere osorik argitaratzen direnetik 20 egunera.
- C) - Argitaratzen diren egunaren biharamunean.
- D) - Ez dago finkatuta epea.

20- Kode Zibilaren 1. artikulua arabera, goragoko beste baten kontrako diren xedapenak...

- A) - legez kontrakoak dira.
- B) - baliogabeak dira.
- C) - moralaren kontrako ez badira aplikatu ahal izango dira.
- D) - gobernuak baimentzen baditu aplikatu egingo dira.

21- Herritarrek eskubidea dute...

- A) - agintari eta funtzionarioek errespetuz eta begirunez tratatzeko.
- B) - herri-administrazioen erregistro eta dosierretara irispidea izateko.
- C) - alegazioak eta agiriak aurkezteko, prozeduraren edozein alditan, entzunaldi-izapidea baino lehen.
- D) - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

22- Zein da berriazko ebazpena jakinarazteko gehieneko epea?

- A) - Prozedura arautzen duen arauan finkatutakoa.
- B) - Sei hilabetekoa, salbu eta lege mailako arau batek handiago bat ezartzen badu edo Europar erkidegoko araudiak hala aurreikusten badu.
- C) - Hiru hilabetekoa, salbu eta lege mailako arau batek handiago bat ezartzen badu edo Europar erkidegoko araudiak hala aurreikusten badu.
- D) - a eta b erantzunak zuzenak dira.

23- Herritarrek bulego publikoetara agertzea...

- A) - nahitaezkoa da beti.
- B) - inoiz ez da nahitaezkoa.
- C) - idatziz egingo da beti ere.
- D) - lege mailako arau batean hala aurreikusten denean bakarrik izango da nahitaezkoa.

24- Zein da estatuko administrazioak izapidetzen dituen prozeduretako hizkuntza?

- A) - Beti eta kasu guztietan gaztelania.
- B) - Estatuko hizkuntza ofizialetako edozein.
- C) - Gaztelania edo hizkuntza koofiziala, egoitza autonomia erkidegoan duten organoei zuzentzen zaienean.
- D) - Gaztelania, autonomia erkidegoetako hizkuntza ofizialak eta Europar Batasunekoak.

25- Prozedura batean interesdun denak jakinarazpenari uko egiten badio, hala jasoko da dosierrean, eta

- A) - gauzatutzat joko da izapidea.
- B) - bigarren ahalegin bat egingo da, behin bakarrik eta beste ordu batean, hurrengo hiru egunetan.
- C) - bigarren ahalegin bat egingo da, behin bakarrik eta beste ordu batean, hurrengo egunean.
- D) - Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

26- Atzeraeragina eman ahal izango zaie administrazio egintzei...

- A) - Inoiz ez.
- B) - Beti.
- C) - deuseztatutako egintzen ordezkioak direnean.
- D) - Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

27- Argi eta garbi eskumenik ez duen organoaren egintzak...

- A) - Deuseztagarriak dira.
- B) - Erabat deusezak dira.
- C) - Irregularrak dira.
- D) - Baliozkotu daitezke.

28- Noiz egiten da jakinarazpena iragarki bidez?

- A) - Jakinarazpena egiten saiatu arren gauzatu ezin izan denean.
- B) - Prozedurako interesdunak ezezagunak direnean.
- C) - Jakinarazpena egiteko lekua edo bidea jakiteko modurik ez dagoenean.
- D) - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

29- Prozedura amaitutzat jotzen duen administrazio ebazpen baten kontra, zer errekurtso aurkez daitezke?

- A) - Berrikusteko errekurtsoa.
- B) - Gora jotzeko errekurtsoa.
- C) - Berraztertze errekurtsoa.
- D) - Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

30- Egintza bat berriazkoa ez denean, zenbatekoa da errekurtsoa aurkezteko epea?

- A) - Hilabetekoa.
- B) - Bi hilabetekoa.
- C) - Ez dago eperik.
- D) - Hiru hilabetekoa.

31- Noiz aurkeztu ahal izango da berrikusteko errekurtsu berezia?

- A) - Egintzak ematerakoan egitezko errakuntzaren bat izan bada.
- B) - Funtsezko agiriak agertzen badira.
- C) - Egintzak prebrikazioaren ondorioz eman badira.
- D) - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

32- Gora jotzeko errekurtsuaren ebazpena jakinarazteko gehienezko epea haxe izango da:

- A) - Hilabete. Epe hori igarotzen delarik ezetsizat joko da.
- B) - Bi hilabete. Epe hori igarotzen delarik ezetsizat joko da.
- C) - Hiru hilabete. Epe hori igarotzen delarik ezetsizat joko da.
- D) - Sei hilabete. Epe hori igarotzen delarik ezetsizat joko da.

33- Administrazio prozeduren itundutako amaiera...

- A) - ez da posible.
- B) - kasu guztietan da posible.
- C) - antolamendu juridikoaren kontrako ez den guztietan da posible.
- D) - hirugarrenei eragiten ez dien guztietan da posible.

34- Prozedura hasi edo izapidetzen duen administrazio organoak, prozedura hasteko modua edozein izanda ere,...

- A) - bateratu egin dezake antzeko beste batzuekin.
- B) - bateratu egin dezake ebazte data bera duten beste batzuekin.
- C) - bateratu egin dezake funtsezko berdintasuna edo lotura estua duten beste batzuekin.
- D) - Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

35- Prozeduraren instrukzioan, instrukzio-egileak...

- A) - ezingo ditu inolaz ere errefusatu interesdunek proposatzen dituzten frogak.
- B) - interesdunek proposatzen dituzten frogak errefusatu ahal izango ditu, argi eta garbi desegokiak edo alferrekoak badira.
- C) - froga dokumentalak bakarrik onartuko ditu.
- D) - adituen frogak bakarrik onartuko ditu.

36- Noiz jar dezakete herri-administrazioek hertsatzeko isuna?

- A) - Legeek baimentzen dutenean eta haietan zehazten diren forman eta zenbatekoan.
- B) - Kasu guztietan.
- C) - Inoiz ere ez.
- D) - Beste zigorrik ez dagoenean bakarrik.

37- Prozedura amaitutzat jotzen duen ebazpenak...

- A) - hartan aintzat hartutako kontu guztiak ebatzi beharko ditu.
- B) - aintzat hartutako kontuez gain, ondoriozko bestelako kontuak ere ebatziko ditu.
- C) - Interesdunak eskaturik izapidetu bada prozedura, hark egindako eskariekin bat etorri beharko du.
- D) - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

38- Administrazio kontratuak desegiteko arrazoi dira...

- A) - banako kontratistaren heriotza edo ezusteko ezintasuna.
- B) - kontratistaren porrot-aitorpena.
- C) - administrazioaren eta kontratistaren arteko adostasuna.
- D) - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

39- Administrazioaren kontratuak administrazio-agirian gauzatu beharko dira, epe honetan:

- A) - Hogeita hamar egun, esleipena jakinarazten den egunaren biharamunetik.
- B) - Hamabost egun, esleipena jakinarazten den egunaren biharamunetik.
- C) - Hogeita hamar egun, behin betiko bermea eratzen den egunaren biharamunetik.
- D) - Hamabost egun, behin betiko bermea eratzen den egunaren biharamunetik.

40- Administrazio kontratuak dira...

- A) - helburu zuzena obrak gauzatea dutenak.
- B) - helburu zuzena zerbitzu publikoak kudeatzea dutenak.
- C) - aholkularitza eta laguntza helburu dituztenak.
- D) - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

41- 2/2000 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, bertan arautzen diren kontratuen esleipendunak behartuta daude honako berme hau eratzeraz:

- A) - Kontratu aurrekontuaren % 4koa.
- B) - Esleipen kopuruaren % 4koa.
- C) - Esleipen kopuruaren % 2koa.
- D) - Kontratu motaren arabera.

42- Non jasotzen dituzte toki korporazioek urtero beren funtzionarioen ordainsarien kopuruak?

- A) - Lanpostu zerrendan.
- B) - Aurrekontuetan.
- C) - Erakundearen oroit-idazkian.
- D) - Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

43- Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, bere administrazio-jardueran genero-ikuspegia integratze aldera...

- A) - autonomia erkidegoko administrazioaren eskumena da.
- B) - foru administrazioen eskumena da.
- C) - toki administrazioen eskumena da.
- D) - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

44- Eusko Jaurlaritzaren Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako 4/2005 Legearen printzipio orokorrak dira...

- A) - tratu berdintasuna.
- B) - aukera berdintasuna.
- C) - dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea.
- D) - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

45- Emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta horren ildotik ezberdintasunak ezabatzea eta berdintasuna sustatzea xede duten helburu eta jarduera zehatzak txertatzea...

- A) - 4/2005 Legearen arabera, 'ekintza positiboa' deitzen da.
- B) - 4/2005 Legearen arabera, 'aukera berdintasuna' deitzen da.
- C) - 4/2005 Legearen arabera, 'genero-ikuspegiaren integrazioa' deitzen da.
- D) - 4/2005 Legearen arabera, 'dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea' deitzen da.

46- Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren arloan, toki administrazioari dagokio...

- A) - toki-eremuan ekintza positiboko neurriak egikaritzea.
- B) - plangintza orokorra taxutzea, eta arau eta jarraibide orokorrak egitea.
- C) - autonomia erkidegoaren esparruan berdintasun politikak ebaluatzea.
- D) - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

47- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legeak hauxe du helburu:

- A) - Pertsona fisiko eta juridikoen askatasun eta eskubideak bermatu eta babestea, datu pertsonalak tratatzeari dagozkionetan.
- B) - Pertsona fisikoaren askatasun eta eskubideak bermatu eta babestea, datu pertsonalak tratatzeari dagozkionetan; bereziki, ohorea eta intimitate pertsonala nahiz familiarena.
- C) - Pertsona fisikoaren askatasun eta eskubideak bermatu eta babestea, datu pertsonalak tratatzeari dagozkionetan; bereziki, irudia.
- D) - Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

48- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoak arautuko du datu pertsonalen tratamendua...

- A) - tratamendua espainiar lurraldean egiten denean, tratamenduaren arduradunaren establezimendu bateko jardueren baitan.
- B) - pertsona fisikoek beren jarduera pertsonal edo etxeko jardueren baitan mantentzen dituzten fitxategiak direnean.
- C) - gai sailkatuak babesteari buruzko araudiaren mende dauden fitxategiak direnean.
- D) - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

49- Datu pertsonalak dira, Datuak Babesteari buruzko Legearen arabera...

- A) - pertsona fisiko edo juridikoen lan-esparruari buruzko informazio oro.
- B) - pertsona fisikoari buruzko informazio oro, identifikatuta badaude.
- C) - identifikatuta dauden edo identifika daitezkeen pertsona fisikoari buruzko informazio oro.
- D) - pertsonen irudi publikoari eragiten dioten edo eragin diezaioketenak.

50- Datuak Babesteko Legeak arautzen dituen herri administrazioen fitxategiak...

- A) - EBOean edo dagokien aldizkari ofizialean argitaratzen den xedapen orokor baten bitartez bakarrik sortu ahal izango dira.
- B) - Xedapen orokor bat baino ez du eskatzen halakoak sortzeak.
- C) - Ez dago inongo lege betebeharririk halakoak sortzeko.
- D) - Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.